

po y con las amistades de infieles que el Papa Celestino habia ya denunciado.

Antes de examinar estas cuestiones conviene conocer el texto de Abd el-Halim.

ARTURO CAMPION.

(Se concluirá.)

JAYOT-ERRIA ETA ZERUA.¹

Begira, ¡badakust! begira zeru aín garbi, aín zoragarri, aín lasa eta ederki zabaldu orri.

Zeru ori da nere jayoterriko zerua, mantu urdiñ guzizkoa, argi loretsu batek edertzen duena.

¡Zeñ ederra zeran, nere erria! farra gozoa egiñ zuen Jaungoikoak zure lurra egiteratu zuenean.... lorez jantzi zuen, eta aize gozoenai agindu zien lurrinkatu zezatela.

Presko eta lirañ, etzaten zera lorategi gozotsu orretan begirada bildurtia lenbizi bere maiteari zuzentzen dion birjiña eder eta garbieren eran.

Aundia zera, nere erria; odayak ukitzen dituzten dorre oek adierazten dute. Dira zure beso, otoitz egitean zerura alchatzen dituzunak.

Eskill soñu aundietan bildurik jeisten da biotzak mugitzera Erlijioaren itzotsa.... zeru goyetako soñu guzizkoa.

¡Nere erria! ¡nere erria! nik maitatzen zaitut emazte ederra maitatzen dan moduan; nora nai nuala, nere biotzean zaramazkit, eta zugan pensatzean, malkoak iñuritzen zaizkit.

Zugan ikusi nuen aurrenengo, zeruak bialtzen digun argi ori, mi-restu dezagun beraren edertasuna; zugan asi nintzan esaten ortz tar-

(1) Traduccion de *La Pátria y el Cielo*, de D. Antonio Aparisi y Guijarro.

tean amak erakutsi zizkidan otoiñ biguñak; zugaran itz egiñ zien nere animak beste animai itzkuntza miraritsu eta zerukoia; zugaran azkenengo muñ egiñ nion eskuan nere aitari, eta eman nion musu garbia nere arrebari,

Zugaran jo nere erria! zugaran daukat bizitzan dagoen gauzarik garbiena, eta eriotzan sagraduena; nere aurtasuneko seaska eta nere aitaren obia.

Orregatik sentitzen nintzan triste zugandik urruti; baña tristura artan bazegoen gauz isill zoragarri bat, zan, igarotako poz eta atsekabearen oroitzua illun eta urrutikoaren antzekoa.

Sentitzen nintzan triste, eta esaten nion nere buruari, ¿noiz ikusiko ditut berriz kanpo aiañ eder ayek, argi aiañ gozo ura, eta ibilliko naiz karrika jakiañ aetan, eta topatuko ditut nere adiskideak, eta estutuko ditut nere biotzean?

Emen naukazu, nere erria, emen naukazu; naizan umill onek glori aundia iduki nai nuke, zure koroari lore bat ezartzeko; baña badet beintzat anima sentikor bat, eta beronen amorioa ematen dizut. Emen naukazu, zure airea artzen det, begiratzen diot zure zeruari, eta doatsua naiz.



¿Zorionekoak! ¿Zer itz irten da nere ezpañetatik? Ezagutu al degu guk zoriontasuna zer dan?

Mamu bat, laztantzean desegiten dana; lore bat, ukitzean belaskatzen dana, itzal bat, jarraitzean iges egiten duena. ¿Zer dakigu guk zoriontasuna zer dan?

Atozte, nere adiskideak, eta inguratu nazazute, konta dizayegun elkarri biotzeko isill-kontuak. ¿Sentitzen zerate benturaz zorionekoak?

Gure jayoterritik urruti arkiturik, antsiaz gaude bertara itzuli naye, eta itzultzean antsia etzaigu kentzen, sentitzen degulako geron barrunbeetan urrutira joan nai atsekabetzen gaituena. ¿Beste jayoterritik bat izango ote degu gure doatsueratzat?

¿Gizona! jayo ziañan tokia da zure erria; ¿kristaua! begira zerura; ori da zure erria.

¿Zer da mundua, ezerezaren eta betikoeraren tartean Jaungoikoak utzitako pauso bat baizik?

¿Zer gera gu illunpetan oyuska, erri argi eta zorioneko orren billa gabiltzan erbestetu errukarri batzuek baizik?

Ez esan neri au ederra dala; eriotzak dana illuntzen du. Erreka orrek mur mur egiten du, lore ori mardula dago, baña pauso bat emazu, eta erreka leortu da, lorea zimurtu.

Begira atzera.... ¡ondakiñak! begira aurrera.... ¡danak lur jotzen du!

Eriotza da munduko agintaria; gure anima eziñ bizi diteke eriotzako lurbira onetan.

¡Aizea! ¡aizea! bada anima itoka dago; emayozute pakea, negarrez eta gudaz aspertua dagoelako.

Erregeak dira gizonak; eta loyetan dabilta arrastaka; senideak, eta elkar zatitzen dira: Jainkoaren semeak, eta arnegatzen dute eriotzak ondatzen dituen arteraño.

Atera gaitzatzu miseriazko toki onetatik, kateak urratuta erori bitez, eta animak ega egin dezala.

Ene anima, ¿ez dakizu mundu ekaizdun onezaz gañdik badagoela beste lurbira bat, pakea dagoena, argia illuntzen ez dana, eta bizia beñere aitzen ez dana?

An, ene anima, an murgildu al—izango zera betikotasunezko leizondo argietan Jainkozko iñiltasunaren artean, an bizi al—izango zera amoriozko betiko bizitza Jaungoikoaren alboan....

Lurbira ori, ene anima, da zerua; zeru ori, ene anima, dazure jayoterrria.

MANUEL ANTONIO DE ANTIA.

